

# txintxarri

## Errautsetatik berpiztuko da jaia

Sardina erreta amaitu dira Inauteriak. Horren aurretik, gogotik gozatu dute mozerro koloretsuak jantzi dituzten herritarrek / 2-4

TXINTXARRI

## Sinkronia onaren emaitza

'Sinkronia' izeneko ikus-entzunezkoa ondu dute Haizea Huegun eta Gorka Ipiñazarek, Gotzon Huegunen lana erakusteko / 6-7

**Sahararen alde mobilizatu dira eta ohartarazi dute harrera familiak behar dituztela / 5**

**Euskara alorrean eragiteko hitzarmen berria sinatu dute Buruntzaldeko sei udalerriek / 8-9**

**16 urtez azpiko atletek dominak eta markak eskuratu dituzte Gipuzkoako txapelketan / 10**

**Eguzki AFko harrobiko taldeek lehen postuetan amaituko dute ligako lehen fasea / 11**

**23 urtez azpiko Euskal kros ligako garaile eta triatloi kirolari Aimar Sukunzarekin solastu gara / 13**

**Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltako ekimenek bete dute kultura agenda / 15**

## multilens PROAI

Zure ikusmenera egokitzen diren,  
**adimen artifizialarekin**  
diseinaturiko lente progresiboak.



## MULTIÓPTICAS

943 37 74 55  
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

www.multioplicas.com   



# Ikus-entzunezko fantasia bat

## Mozorro bikainak kaleetan

Disney unibertsoko pertsonaia eta istorioak hautatu dituzte batzuek mozorroak prestatzeko (udalak iragarritako gaia izan da hori, parte hartze prozesu bidez hautatua), eta Sorgin Jaiak-ek proposatutako euskal ikus-entzunezkoak besteek (eragile horrek urte osoan egitasmoak aurrera eramateari ekin dio, herriko jaietz aparte). Denen artean, ikusi eta entzuteko moduko fantasiako Lasarte-Oria bat irudikatu dute Inauterietan zehar, batez ere, hilaren 1ean, larunbatarekin. Egun handi horretan protagonismo berezia hartu zuten aurtengoan parte hartu duten bost konpartsek, goizeko aurkezpen emanaldietan nahiz arratsaldeko desfilean: Biyak Bat, Jalgune, Intzak Parranda, La Tribu eta Sasoeta Sasoian. Guztiek lan bikaina eginagatik, aurten ere epaimahaikide lanak egin dituzten Aterpeko merkatariek erabaki zuten azken talde horri ematea sari nagusia, zintzarria. Urtebetez gordeko dute Sasoeta auzoan duten lokalean.

Larunbat horretako ekimenez aparte beste asko aurrera eraman zituzten herrian. Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleak hasi ziren, kontzertu bufoarekin. Ondoren, txantxoekin urtero dugun ituna berritu zuten udalerriko bizilagunek: ordain baten truke, ez dute gaitzik eragingo eta uztak bakean utziko dituzte, datorren urtera arte. Hori bai, Kaxkamalo gaiztoa sutan erre zuten. Arratsalde berean egin zituzten 9 eta 16 urte arteko gaztetxoaren mozorro festa koloretsuak. LOZET elkartearen erraldoi, buruhandi eta zezensuzkoak azaldu ziren eta baita Oaintxe in deu! txaranga ere. Amaitzeko, sardina ehortzi eta erre zuten, Okendo plazan, Frenetik taldearen eskutik.



Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertu bufoa eman zuten. TXINTXARRI



9 eta 16 urte arteko gaztetxoentzat bi mozorro festa egin zituzten. TXINTXARRI



Disney-ren unibertso zabaleko zenbait pertsonaia, kuadrilla berekoak. TXINTXARRI



Txantxoek eta gizakiek urteroko ituna berritu zuten, eta Kaxkamalo gaiztoa sutan erre, Okendo plazan. TXINTXARRI



'Lehoi erregea' filmeko pertsonaietan inspiratu zen lagun talde hau. TXINTXARRI





Sorgin Jaiak eragileko kideek euskal ikus-entzunezkoak proposatu zituzten mozorrotzeko gaitzat. 'Wazemank', 'Teo' edota 'Berebiziko espioiak' bezalako klasikoak ikusi genituen, besteak beste. TXINTXARRI



Konpartsen emanaldien ostean mozorro lehiaketetako hautagaiek euren jantziak erakutsi zituzten, dantza eta guzti. Erne-erne baloratu zituzten Aterpeako mahaikideek, eurak ere bikain mozorrotuta. TXINTXARRI



Herriko kaleei kolorea eman zieten erdigunean barrena desfilatu zuten konpartsek: Sasoeta Sasoian, Jalgune, Biyak Bat, Intzak Parranda eta La Tribu. TXINTXARRI



Konpartsek bakarrik ez, herritar askok ere gozatu zuten arratsaldeko desfileko giroaz. Bukatutakoan sariak banatu zituzten eta Sasoeta Sasoianeko lagunek etxeratu zuten zintzarria. TXINTXARRI





LOZET elkartearen erraldoiek eta buruhandiek eta Oaintxe in deu! txarangak Inauteri igande goiza alaitu zuten; DJ Nikok, arratsaldea. Biharamunean, puzgarrietan ibili ziren haur asko. TXINTXARRI



Sardina zenaren lagun eta ahaideak, elkar kontsolatzen, kiskalia izan aurretik. Ehorzketa amaitzean, zezensuzkoak atera zituen LOZET elkarteak Kale Nagusira. TXINTXARRI

## Udala: "Guzti-guztiei, eskerrik asko"

Agustin Valdivia alkateak eta Jaiak sailko zinegotzi Txus Alonsok pozarren baloratu dituzte Inauteriak: "Giroa oso ona izan da egun guztietan eta primeran pasa dugu denok". Egindakoagatik kontent baina beti hobetu daitekeela jakitun, larunbat gaueko disko festako karpa handitzea eta astelehen goizeko puzgarriak tokiz aldatzea baloratuko dute. Halaber, konpartsetako kideekin bilduko dira, aurtengoa errepasatu eta datorren urteko ospakizunera begira lanean hasteko.

Valdiviak ekin dio agerraldiari eta inoren esku ez dagoen faktoreetako bat nabarmendu du, eguraldiarena. "Hotza egin du baina ona izan da eguraldia, horrek are kolore gehiago eman die egun hauetako ekimen guztiei". Hori esanda, adierazi du "ederra" izan dela giroa, hasi eta buka, eta larunbat gauean ez zela

arduratzeko moduko ezer gertatu, udaltzainek ordezkari politikoei berretsi dietenez.

Jarraian, Alonsok aletu ditu udalaren egitarauko jarduerak, kronologikoki eta banan-banan. Otsailaren 27ko kontzertu bufoa errepasatetik hasi da: "Asteburuan etorriko zen guztiaren aurrekari bikaina izan zen eta ederki aritu ziren Udala Musika Eskolako ikasleak". Goraipatu du baita ere hurrengo eguneko egitarau moldatua: "Uste dut asmatu dugula Euskal Inauteriak eta gaztetxoentzako mozorro festak uztartzen; arrakastatsuak izan ziren eta herritar ugari bildu ziren Okendo plazan".

Ostiralean baino are pertsona gehiago bete zuten enparantza hori larunbatean, Inauterietako egun handian. "Giroa bikaina izan zen goizean goizetik: aurkezpen emanaldi ikusgarriak egin zituzten

konpartsek [Biyak Bat, Jalgune, Intzak Parranda, Sasoeta Sasoian eta La Tribuj". Goizeko lanak eginda elkarrekin bazkaldu zuten karpan, "goxo-goxo". Indarberrituta, arratsaldeko desfile koloretsuari ekin zioten. Partaide guztiak zoriondu ditu Alonsok: "Asko espero nuen konpartsendik baina nire espektatibak gainditu dituzte, benetan lan ona egin dute mozorroekin eta karrozak apaintzen". Guztiek jaso zuten sariren bat, baina ikonikoena, zintzarria, Sasoeta auzoan gordeko dute datorren urtera arte. Mozorro lehiaketako partaideek ere aitortzak jaso zituzten. Horrez gain, aintzatespen berezi bat egin zioten Aitziber Arruti herritarri, "sormen handiena" duenaren saria emanda: "Berari esker berreskuratu dugu sardinaren ehorzketa. Gero eta arrakastatsuagoa da, hein handi batean, Aitziberrek egiten duen antzezpeneagatik".

Gaztetxoentzako disko festarekin amaitu zen larunbata. Aurreko urteetako ikusita, karpa handiago bat jarri zuten Antonio Mercero alboan, baina hori ere txiki geratu zitzaion. "Buelta bat eman beharko diogu datorren urterako", onartu du Alonsok. Udaltzainekin hitz egin dutela ere esan du eta parranda gau horretan "garrantziko ezer" gertatu ez zela jakinarazi, poliziek egindako txostenean irakurri dutenez. Bestalde, Inauterietako gainerako egunetako ekimenak ere "ederki" joan zirela esan dute, nahiz eta onartu puzgarrien tokia, Loidibarren frontoia, "txikiegia" dela herritar denak hartzeko.

Egitarauko jarduerak errepasatuta, Inauteriak koloretzatzen parte hartu duten guztiei eskerrak eman dizkiete udal ordezkariak: "Konpartsetako kideei, herritarrei, boluntarioei, udal langile guztiei eta bereziki udaltzainei, kale garbiketa zerbitzuko beharginei, Aterpea elkarteko kide diren eta urtero epaimahaikide lanak egiten dituztenei... Guzti-guztiei, eskerrik asko".



# Sahararren alde hartu dute herriko plaza

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak deituta, elkarretaratzea egin dute lasarteoriarrek Okendo plazan. Mobilizazioan gogorazi dute hilaren 15era arte dutela herritarrek Oporrak Bakean egitasmoan harrera familia izateko izena emateko aukera

## Txintxarri

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutenetik 49 urte bete direla aitzaikia hartuta, elkarretaratzea egin zuten herritarrek Okendo plazan. *Maroko Saharatik at! Independentzia!* lelopean, dozenaka herritarrek bat egin zuten deialdiarekin. 20 bat minutuko elkarretaratzea egin zuten lehenik, eta horren ostean, arestian aipatu taldeko bi kidek hartu zuten hitza.

Lehenak gogorazi zuten Saharar gatazka armatua dagoela, eta salatu, hori ez dela hedabideetan agertzen: "Komunikabideetan ez da entzuten, beraz, ez da existitzen". Gaineratu zuten horri irtenbidea emango diona "erabaki politikoa" izango dela. Azpimarratu zuten baita ere kanpamentuetan dauden sahararren egoera geroz eta okerragoa dela: "Tenperatura jasanezinak sufritu behar dituzte, eta geroz eta elikadura gutxiago dute".

## Oporrak Bakean

Bigarrena, aldiz, Oporrak Bakean egitasmoaz mintzatu zen. Azaldu zuten hilabete igaro dela aurtengo ekimena, herrian, aurkeztu zutenetik, eta horrek izan duen erantzunarekin "kezkatu-rik daudela" ohartarazi zuten:



Dozenaka herritar, Lasarte-Oria Sahararekin Taldearen mobilizazioan. TXINTXARRI

"Gure helburua uda honetan, Lasarte-Oriara, hiru haur saharar ekartzea zen, baina harrera familia bakar batek soilik eman du izena. Egoera honen aurrean, esan nahi dugu haur horientzat beharrezkoa dela kanpamentuetatik atera, osasun azterketa orokorrak egin eta fisikoki errekuaratzeko elikadura osoa izatea. Gauzak horrela, egoera aldatzen ez bada, bi haur horiek basamortuan geratzea beste aukerarik ez dute izango, eta hori gerta ez dadin, herritarrek harrera fa-

milia izatera animatu nahi ditugu". Hilaren 15era arte dago izena emateko aukera. Horren gaineko informazioa nahi duena, elkartearekin harremanetan jar daiteke, eta horretarako honako bide hauek erabil ditzake: [www.oporrabakean.eus](http://www.oporrabakean.eus); 696 014 786 telefono zenbakia, edo [oporrabakean@gmail.com](mailto:oporrabakean@gmail.com) helbide elektronikoa.

Elkarretaratzeak iraun artean, bertaratu diren sahararrak dantzan aritu ziren, eta izan zen askatasun irrintzia egin zutenik ere.



Memoriaren parkean aurrera eramán du agerraldia EH Bilduk. TXINTXARRI

## Iturralde eta Balerdi gogoan, Lasarte-Oriako EH Bilduk

Alderdiak agerraldia baliatu du bi herritar horien memoria errekonozitua izatearen beharra aldarrikatzeko

### Txintxarri

"35 urte pasa dira mota askotako sufrimenduak sortu dituen salbuespeneko dispertsio politika indarrean jarri zutenetik" kritikatuko du EH Bilduk, eta, gaineratu, "borroka askoren ondorioz", dispertsio politika horri "buelta ematea lortu arren, horrek ez duela esan nahi, oraindik orain "zauri handiak sendatu gabe" geratzen ez direnik, eta horren adibide gisa aipatu ditu, hain zuzen ere, Argi eta Iñaki.

Aipatu bi herritar horiek bizia galdu baino, horiei bizi kendu zieten azpimarratu du gero. Hala, aipatu bi herritar horiek bezala, dispertsio politikaren ondorioz bizia galdu zuten beste hamalau lagunak ere gogoan izan ditu.

### Memoria errekonozitzeko aldarria

Iturralde eta Balerdira gertatutakoak "atzeratu bueltarik ez" duen arren, horien memoria errekonoz-

zitua izatearen beharra aldarrikatu du. Ildo horretatik, salatu du errepidean hil diren hamasei senide eta lagun horien memoria aitortua izateko eskubidea urratzen ari dela.

Gauzak horrela, aipatu alderdi politikoarentzat herrian dispertsio politikaren biktima horien memoriari eta familiari egiten zaien bazterkeria ez da ulergarria, ezta onargarria ere: "Gertatutakoaren egia mosaiko handi bat izan behar da, egia ezberdinez osatutakoa. Egia guztiak maila berean ikusarazi eta errekonozitu behar dira gizartearen aurrean, bai kalean eta bai instituzioetan.

Agerraldia amaitu aurretik nabarmentu du "herritar guztien eskubideekiko arduraz izateko unea" dela. Halaber, biktima ororentzat, salbuespenik gabe, eta, noski, Iturralde eta Balerdirerentzat ere "egia, justizia, erreparazioa eta diskriminatuak ez izatea" galdegina du.



# ESPERANTZARI LEIHO BAT

Hartu etxean ume saharar bat udan

**2 HARRERA-FAMILIA BEHAR DIRA LASARTE-ORIAN**

| Udako Txokoak (jangela aukeran) | Itzultzaile / begiralea

| Igeriketa ikastaroa kiroldegian | Ekintza bereziak beste herrietako haur sahararrekin

**696 01 47 86 | [oporrabakean@gmail.com](mailto:oporrabakean@gmail.com)**



martxoaren  
15era arte



**Maddi Zaldua**

Ia urtebeteko lanaren ostean, ur-tarril amaieran erakutsi zuten, estreinakoz, Haizea Huegunek eta Gorka Ipiñazarrek elkarrekin ondu duten ikus-entzunezkoa: *Sinkronia*. Haizearen aita Gotzon Huegunen azken proiektua (eta izen berekoa) ardatz hartuta, hori nola osatu eta landu duen bildu dute, hasieratik bukaerara. Ez hori soilik, ordea, aipatu artistaren bizitza intimagoan ere arakatu baitute. Egindako lan berri eman diote TXINTXARRI aldizkariari bi egileek, eta baita protagonista nagusiak ere. **Nolatan sortu zen dokumentala egiteko ideia eta aukera?**

Haizea Huegun: Dokumentala egiteko ideia aspalditik genuen, baina, *Sinkronia* erakusketa planteatu zenean, hasi ginen ideia horri forma ematen. Aitak obra berriak prestatu behar zituen erakusketarako, eta hor erabaki genuen horiek lantzearen prozesua grabatzea. Prestatzera gindoazen dokumental hori erakusketan erakutsi nahi genuela ere argi genuen, jendeak askotan lanaren zati hori galdu egiten duelako, eta hain zuzen ere ikus-entzunezko lanak hori erakutsiko zuelako.

Gorka Ipiñazar: Ikusi nuenean Gotzonen lan prozesuak zenbat alderdi eta zati dituen, izugarriko gogoia sentitu nuen hori guztia dokumentatzeko. Cristina Enea Fundazioaren aldetik ere horretarako aukera izan genuen eta horrela ekin genion lan honi.

**Nolako prozesua izan da? Zenbat denborakoa?**

Gotzon Huegun: Ia urtebeteko bidea izan da, hamar bat hilabeteak gutxi gorabehera. Hasierako ideia handitzen joan dela esatea ere interesgarria da. Bi obren jarraipena egiteko asmoa zuten Haizeak eta Gorkak, baina prozesu horretan gauza gehiago ikusten zihozten heinean, horiek ere lanean txertatzea erabaki zuten. Nire eguneroko bizitza nolakoa den, naturarekin zein harreman duan... hori guztia islatzeko lana egin dute.

H.H.: Lan oso-oso gutxi egin dugu, hasi eta buka. Gorka arlo horretako profesionala da, Kipi Kreate izeneko ekoiztetxe bat du.

Gaztean nintzela askotan grabatzen nuen aita lanean ari zenean, eta bideo horiek topatu eta artxiboko material horretatik ere egin dut aukeraketa bat sortu dugun dokumentalean sartzeko. Hori erakustea ere nahi genuen, ikusleek ikus dezaten betidanik izan dela hau

# "Bere intimitatean arakatu eta hori ere erakutsi nahi izan dugu"



Ezker-eskuin: Gotzon eta Haizea Huegun, aita-alabak, eta Gorka Ipiñazar, Askatasunaren parkeko zuhaitz inguruan. TXINTXARRI

**GOTZON HUEGUN, HAIZEA HUEGUN ETA GORKA IPIÑAZAR 'SINKRONIA' DOKUMENTALA** 'Sinkronia' izeneko dokumentalaren egileak dira Haizea Huegun eta Gorka Ipiñazar. Gotzon Huegun eskulturagilearen izen bereko azken proiektua hartu dute oinarri ikus-entzunezkoa ontzeko; lanak lan, pozik agertu dira lortu duten azken emaitzarekin

gure bizitzaren parte. Erakusketa aitzakiatzat hartuta, biografia moduko lan bat ondu dugu.

G.I.: Martxoan hasi ginen grabatzen. Inaugurazio egunera arte grabatu genuen, eta, ostean, dena muntatu dugu. Pentsa, guztira 42 ordu nituen grabatuta: elkarrizketak, basoko irudiak, muralak lantzen, muntaiak, eta abar. Lan-kearekin hasi ginenean, fundazioari [Cristina Enea] aipatu genion

12 minutuko pieza bat sortuko genuela, eta azkenean, ordu erdiko dokumentala osatu dugu.

Dronearekin irudi mordoak grabatu ditugu; basoa eta horren ingurukoak, Aralarko Malloak ere. Ideia zen horrekin jolastea, izan ere, Gotzonek erretratzen dituen patrioiak naturan eskala ezberdinetan baitaude. Adibidez, dronearekin basoa goitik behera grabatzen badugu, liken baten

itxura har dezake, eta zuhaitzek eta horien adarrek neuronon konexioa irudika dezakete. Ikusleari transmititu nahi izan diogu berak hori guztia nola ikusten duen; begirada hori irudietara ekarri nahi izan dugu.

G.H.: Irudi horiek ikusgarriak dira, eta uste dut horiek ere jendea harraparazi dutela.

## "IA URTEBETEKO BIDEA IZAN DA. LAN OSO-OSOA GUK EGIN DUGU, HASI ETA BUKA"

**Dokumentalean entzun daitekeen musika proiektu horretarako zuk sortua izan da, Haizea.**

Bai. Musikagilea naiz, eta lan honetarako musika sortu eta erakustea ere polita iruditu zitzaidun. Ikus-entzunezkoan natura oso presente dago, horregatik asko entzuten dira, adibidez, haizea, edota txoriak eta musika dago hori guztia akonpainatzen; *Sound design*-a egin dugu.

**Pentsatzen dut zuretzat ere berezia izango zela artxiboko material horren guztiaren bilketa lan hori egitea, ezta, Haizea?**

H.H.: Bai, kurioa izan da, bai. Gogoan dut bideo kamera oparitu zidatela, eta behin eta berriz pentsatzen nuela etorkizun batean grabatutako guztiarekin zerbait egingo nuela. Politia izan da orduko nahi hura, Gorkaren laguntzarekin, egia bilakatu dela ikustea. **Zer erakutsi nahi izan duzue?**

H.H.: Guretzat garrantzitsua zen istorio bat kontatzea, izan ere, bestela, publizitate spot baten tankera har baitezake lanak. Guk hortik irundu nahi izan dugu, eta beste ikuspegi batetik kontatu. Horregatik sartu ditugu nire gazetako bizipenak, edo aita grabatzen nueneko uneak, adibidez. Gertutasuna ere ematen du horrek; intimitate horretan arakatu eta hori erakusteko ahalegina egin nahi izan dugu. Artistak egiten duenaren berri eman dugu, baina erakutsi dugu ere, besteak beste, hor ere familia bat dagoela. Egurra lantzeko eskolak nola ematen dituen ere dokumentatu dugu.

G.H.: Nire bikotekidearen eta Haizearen amaren zein Haizearen off ahotsak ere agertzen dira lanean [bikotekidearenak gaztelaniaz dira, baina euskarazko azpitituluak ditu]. Horrek guztiak erakusten du familia bat dagoela honen guztia atzean. Nire inguruan daudela, elkarrekin garelako, eta eurak garrantzizko egitura bat direla honetan guztian.

G.I.: Artistek ofizioa dutela erakustea ere garrantzitsua zen niretzat. Hainbeste ordu eta hainbeste lan azken emaitzan ikus dezake jendeak, eta adieraz dezake gus-tuko duen hori edo ez, baina hori



## "LAN HONEN BIDEZ ARTISTEK OFIZIOA DUTELA ERAKUSTEA ERE GARRANTZITSUA IZAN DA NIRETZAT"

lortzera iristeko egin duen bideari eta hor dagoen jakituria horri guztiari ere egin nahi izan diogu azpimarra.

**Hori diozula, iruditzen zaizue artisten lana oraindik orain ez dela lan edo ofizio gisa ikusten? Gutxietsi egiten dela zentzu horretan?**

H.H.: Bai. Oraindik ere talentu gisa hartzen dute askok; musikan ere gauza bera gertatzen da. Eta bai, artistak talentua izan dezake, baina lan handia egiten dutela erakutsi nahi izan dugu. Lanbidea dela erakustea ere garrantzia izan du guretzat. Aita eskultorea da, beste edozein lanbide bezala. Gero, agian, bere lan horretan artista izango da, baina egiten duena da bere lana, beste edonor bezala.

**Erakusketaren izen bera eman diozue dokumentalari: 'Sinkronia'.**

G.H.: Sinkronia da bi elementuen arteko elkartzea. Orduan, erakusketa honetan gauza asko elkartzen zirelako erabaki nuen izen hori ematea. Alde batetik artea eta natura. Beste sinkronia bat ere eman da lan honetan, zientziaren eta artearen artekoa hain zuzen. Gizakiarekin ere bai.

**Izenburu hori baliatuta, galdetu nahi nizuke nolako izan den zuon bion arteko sinkronia lana osatzerako orduan, aita-alaba artekoa.**

G.H.: Haizeak esaten zidan guztia egin dut nik; menpekotasun bat egon da, ez da sinkroniarik egon [barre egin dute aita-alabak, elkarri txantxa eginez]. Aholku asko eman dizkit, bada, zein arropa jantz nezakeen aholkatu dit, hau edo beste hura... Ez, txantxak alde batera utzita, [Haizeak] hau guztia txikitatik bizi izan duenez, erabat naturala izan da elkarlana. Noski, beste adin batekin harrapatu du bera lan honek, baina beti egiten ikusi izan nauena egiten ikusi nau orain ere. Nolabait esatearren, nire ekipokoa da. Egun berak kudeatzen dizkit sare sozialak, esaterako. Ohituta gaude elkarrekin aritzera. Beste profesionaltasun batekin egin dugu lan hau, baina ez da ezer berria izan.

H.H.: Dokumentaleko nire off ahotsak erakusten du ni txikitatik ohituta nagoela aita laguntzera,



Irudi honetan Gotzon Huegun ageri da Cristina Enea Fundazioan ikusgai jarri duen pieza bat ondoan duela. HAIZEA HUEGUN

edo proiektuak aurkeztera zein eskulturak kokatzera, eta abar. Hori bai, niretzat, alaba naizena aldetik, historia honi distantziatik begiratzea zaila izan da. Pentsa, zenbaitetan gurasoekin elkartzen nintzenez iruditzen zitzaidan dokumentalaren barruan nengoe-la. Aita eta biok nahiko antzetaoak gara, eta Gorkak ere hor izan du bere lana.

**Azken emaitzarekin gustura zaudete?**

G.H.: Bai, oso. Balioan jarri nahi dut egin duten lana. Kanpotik ikusita, hainbeste ordutako grabaketak eskuartean izanda, gero, hainbeste mugatzea, sekulako lana da. Transmititu nahi izan dutena transmititu dutela ikustea ere ondo egindako lanaren emaitza da. Aurrekontua mugatua zen, eta eskuartean izan dituzten baliabideekin, izugarriko lana egin dute. Horrelako prozesuetan, beste aurrekontu handiagoak badituzu, jarraipena ere handiagoa egin dakioke. Ez dituzte baldintza onenak izan, eta hala eta guztiz ere, izugarriko lana egin dute.

Dokumentala laburra egin zaie-la esan digunik ere bada.

G.I.: Bai. Nire aldetik esan, nahi izan dudana guztia egin dudala; esan nahi dut esfortzu handia egin nahi nuen lan honetan, eta hala egin dut. Uste dut hirurok gustura sentiaraziko gintuen lan bat osatzeko, eta hori lortzeko ahalegin guztia egin dugu, kontuan izan gabe baliabideena, adibidez. Gehiago lortu izan bagenitu bikain, bai-

na eskuartean izan dugunarekin ordu gehiago sartzea edo gutxiago ez da arazo izan.

H.H.: Pase bat egin genuen dokumentala erakusteko, eta bertan jasotako iritziek berretsi dute egin nahi genuena egitea lortu dugula. Ikus-entzuleak hunkitu ziren, eta, hori, adibidez, ez nuen espero. Ni historia honen parte naizenez, kontatzen dena ulertzen dut, baina, ziur egon nahi nuen ikusleek ere ulertuko zutela, eta jaso dugunagatik hala izan da. Aita eta alaba arteko istorio horren gertutasunarekin jendea identifikatzen da.

Iazko Mendifilm jaialdian epaimahaikide gisa aritunintzen. Lau egunetan hainbat eta hainbat dokumental ikusi nituen, eta bertan jaso nuen inspirazio puntu bat, hori ikusi ahal izan bainuen zerk funtzionatzen zuen, zerk ez, zein egitura ziren egokiak, eta abar. Horrek guztiak balio izan dit gero gure lana garatzeko eta argiago izateko zer bai eta zer ez. Adibidez bat jartzearen, egin genezakeen erakusketa egunera arteko atzera kontaketa baten egiturarekin, adibidez, baina ez dugu bide horretatik jo, beste zerbait egin dugu.

**Cristina Eneako erakusketa aretoa natura parke batean kokatutako dago. Leku aproposa zurea bezalako erakusketa bat jartzeko.**

G.H.: Lekua oso atsegina da. Erakinerira iritsi arteko bidea ere ederra da; Cristina Eneako parkeko baso txikia zeharkatu behar da. Erakusketa hiru aretotan banatu-

ta dago, eta horietako bakoitzak gai baten gaineko lanak erakusten ditu. Zientzia eta natura; gizakia eta natura eta transformakuntza. Amatasunaren gaineko eskultura batzuk ere jarri ditut ikusgai. Horiekin erakutsi nahi izan dut amatasunak gizaki amoretsu bat sortzeko, baita naturarekiko, munduarekiko eta bestearekiko errespetua izango duen. Hor ere beste sinkronia bat ematen da. Oso kontent nago; oso sentsazio onak dauzkat.

H.H.: Bertan antolatzen dituzten erakusketak naturarekin zerikusia dutenak izaten dira, eta horregatik eskaini zioten aitari berea egiteko aukera.

**Eta egindako lan horrek zein bide egingo du aurrerantz? Baduzue inon erakusteko intentziorik?**

H.H.: Orain jaialdietan eta erakusten saiatuko gara. Hori dela-eta, Cristina Enean egitea aurreikusitako bigarren emanaldia bertan behera utzi behar izan dugu, hain zuzen ere, jaialdietan aurkezteko baldintzetako bat delako aurretik ez proiektatzea.

G.H.: Herrian pasa den hilabetean aurrera eraman duten Euskal Dokumentalen Zikloan erakusteko proposamena ere egin ziguten, baina arrazoi berberetatik oraingoan ezezkia eman behar izan dugu. Hori bai, orain ez, baina aurrerago Lasarte-Orian proiektatu ahal izatea espero dugu.



Gotzonen obra bat. H.HUEGUN

## Erakusketa, Cristina Enea Fundazioan

Mikroskopioen bitartez ikus daitezkeen zientziako irudi "txiki bezain ederrak" ikusleari arte plastikoaren bidez gerturatu asmoz ondu du Huegunek *Sinkronia* izeneko erakusketa. Bere eskulturagile ibilbide osoan egin bezala, azken proiektu horretan ere natura izan du ardatz, baina, elkarrizketan irakur daitezkeen moduan, oraingoan zientziarekin ere sinkronizatu ditu naturako elementuak, adibidez, erakusketa eraikinaren hiru aretoetako lehenean, partikula subatomikoen talka bat irudikatzen duen egurrezko mural ikusgarri batek egiten die ongi gorria bisitariari. Horrez gain, kontaktatu du neguan basoetako zuhaitzetara eta horien adarretara begiratzen ikus daitezkeenak, neuronek sortzen dituzten irudien antzekoak direla. Hori ere erakutsi du bere artelanaren bidez.

Aitortu du ez direla "ohiko konposizioak", eta hori hala izaki, ikusleek "harridura" agertu dutela eta egitasmoa izaten ari den "harrera onarekin" pozik agertu da.

Guztira hamazazpi mural, lau eskultura eta beste lau lamina ikusteko aukera izango dute bertaraten direnek.

Datorren igandera arte, hilak 16, izango da erakusketa ikustera joateko aukera.





Buruntzaldeko sei udalerrietako alkate eta Euskara zinegotziek nahiz teknikariek elkarrekin lan egiten jarraitzeko konpromisoa eta gogoa irudikatu dituzte. TXINTXARRI

# Hitzarmen berria, osoagoa eta sendoagoa

Euskara arloko lankidetzak akordioa berritu dute Buruntzaldeko sei udalek, lau urterako. Orain arte jorrotutakoaz gain erronka berri batzuei helduko diete, hori bai, hasierako helburu berberarekin: euskararen normalizaziorako egitasmoak elkarren artean bideratzea

## Txintxarri ESKUALDEA

Buruntzaldean errotuta dagoen eta dagoeneko fruitu oparoak eman dituen lankidetzak hitzarmena berritu dute eskualdeko sei udalerrietako ordezkariak. Hernaniko udaletxeko pleno aretora bertaratu dira Astigarragako alkate Xabier Urdangarin, Hernaniko alkate Xabier Lertxundi, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia, Andoingo Udaleko Euskara zinegotzi Marta Lasa eta Urnietako Udaleko Sustapen zinegotzi Ana Pozas. Gauzak horrela, euskara arloan lankidetzan segiko dute, orain arte landutako guztiaz gain erronka berriei helduta, hori bai, orain arteko helburuari utsita: euskararen normalizaziorako egitasmoak elkarren artean bideratzea. Lau urterako izango

den elkarlan egitasmoa 2002an hasitako lanaren segida izango dela nabarmendu dute ordezkariak.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnietako eta Usurbilek errealitate linguistiko desberdinak dituzte baina antzeko egitasmoak martxan ditu hainbat arlotan, nork bere bitartekoak erabiliz prestatuak. Ekimen horiek eskualdera zabaldua "aberatsagoak eta sendoagoak" izango direla sinetsita daude: "Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzearen poderioz landuagoak izango direlako eta, ondorioz, baita eraginkorragoak eta errentagarriagoak ere".

**Egindakoa eta egiteke dagoena** Hernaniko eta Lasarte-Oriako Euskara zinegotziek, Axier Mingo eta Estitxu Alkorta hartu dute hitza ondoren, elkarlan

hitzarmenaren gakoak azaltzeko. "Merkataritza edota autoeskolen eremua euskalduntzen aritu gara eta familia transmisioari ere heldu diogu, esparru hori oso garrantzitsua delako euskara ama hizkuntza gisa transmititzen jarraitzeko. Nire iritzia apalean, oso-oso lan txukuna egin dugu orain arte", azpimarratu du Mingo. Dagoeneko ondu eta zabalduak izan diren egitasmoen artean, Buruntzaldeko kultura agendarena nabarmendu du: "Ikustaldi ugari jasotzen ditu, herritar askok begiratzen dute eta euskaraz kontsumitzeko oso atari interesgarria da". Alkorta hitza eman aurretik, nabarmendu du etorkizuneko lan ildoak Eusko Jaurlaritzak aurkeztu berri duen AROA Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoak zehazten

dituen zazpi ardatzen gainean aurrera eramango dituztela.

Alkorta berak eman ditu etorkizuneko erronkei buruzko zertzelada batzuk. Azpimarratu du, adibidez, lan mundua: "Gure gazteek euskaraz egiten dituzte ikasketak, eta, logikoki, esparru horretara egingo duten jauziak ere hizkuntza horretan izan behar du". Eskualdeko udalek hartu dute konpromisoa beste esparru batzuetan ere eragiteko, hala nola adin tarte horretako ahazko erabilera: "Pisu guztia beraiengan jartzen dugu eta ez da justua, baina euskara-eskola binomioa hautsi eta gustuko dituzten aisialdi egitasmoetan ere eragin behar dugu, aukera gehiago eman eta euskararekiko lotura positibo horiek sendotzeko". Horiez gain, etorri berriak diren harrera eta Lanbide Heziketa aipatu ditu zinegotziak.

Bestalde, Buruntzaldean abian jarri duten lankidetzak goraipatu du: "Euskararen sustapenean eragiteko aukera ematen digu".



## "Taldean arituta, urrunago iristen gara guztiok"

**AXIER MINGO HERNANIKO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA** "Helburua da euskara normalizatzeko egitasmoak elkarren artean garatzen jarraitzea, taldean urrunago iristen garelako. Eskualdean esparru asko jorrotatu ditugu, eta, horietatik, nabarmendu nahi dut Buruntzaldeko kultura agenda: aisialdia euskaraz kontsumitzeko oso atari interesgarria da, eskualdeko udalerrietan zer antolatu duten kontsultatu eta ekimenetan parte hartzeko, herri batetik bestera jauzi eginda".



## "Aintzindariak gara lankidetzak eredu honetan"

**ESTITXU ALKORTA LASARTE-ORIAKO UDALEKO EUSKARA ZINEGOTZIA** "Goraipatu egin nahi dut lankidetzak mota hau; aintzindariak gara eredu honetan. Aurrera begira erronkak ditugu eta Eusko Jaurlaritzaren AROA marko estrategikoak zehazten dituen zazpi ardatzen baitan jarraituko dugu lanean. Izango ditugun desafioen artean lan munduarena azpimarratuko nuke. Gure gazteek euskaraz egiten dituzte ikasketak, eta, logikoki, esparru horretarako jauziak ere hizkuntza horretan izan behar du".





# Soziolinguistikoki anitzaren eskualdeko herriak, elkarrekin eragiten



## Txintxarri ESKUALDEA

Ezaugarri desberdinetako sei udalerrik osatzen dute gure eskualdea: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Bakoitzak bere berezitasunak ditu eta anitzak dira, besteak beste, soziolinguistikoki, baina herri horiek guztiak badituzte gauzak komunean eta horiek bateratzen ditu Buruntzaldea Euskaraz atari digital berriak, 2002an hasitako lankidetzaren fruitu mamitsu eta ikusgarrienetako batek. Webgune horretan arakatzen dutenek aukera izango dute jakiteko zer antolatu duten udalerririk horietako bakoitzean, non izango den, zer ordutan hasiko den eta nork aurrera eramango duen. Izan ere, sei herriak desberdinak izanagatik, bertan bizi garenok joera dugu ingurukoetara joan eta bertako euskara eskaintza aberatsaz gozatzeko.

Dagoeneko egindakoa ahaztu gabe, aurrera begira jarri dira sei udalerririk horiek eta lau urterako izango den lankidetzaren hitzarmena berri dute. Hemen dituzue akordioaren gakoetako batzuk:

### Hitzarmen berria, helburu berbera

- Buruntzaldea eskualdeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalen helburuetako bat da, besteak beste, udalerririk horietan euskararen normalizaziorako zenbait egitasmo elkarren artean bideratzea.

### Egitasmo aberatsagoak

- Egitasmoak eskualde mailara zabaldua aberatsagoak eta sendoagoak izango dira, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzearen poderioz landuagoak izango direlako, eta, ondorioz, baita eraginkorragoak eta errentagarriagoak ere.

### Urrunago iritsi eta eragiteko

- Badaude, bestalde, udalerriaz gaindiko gaiak ere, udal batek bakarrik eragin ezin dituen arlo edota sektoreak. Horregatik, ekimen horiek eskualdeko izaera dutenez, maila horretako esku-hartzea bideratuko dute udalek, hitzarmen honen bitartez.

### Lehetasunezko jarduera-esparruak

- Hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik sei udalerrientzat lehenetsutako jarduera-esparruetan jardungo dute: familia eta irakaskuntza, kirola, aisialdia, merkataritza, euskararen erabilera, lan mundua, etorri berrien harrera...

### Lau urterako hitzarmena

- Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, 2025eko otsailaren 28tik kontatzen hasita. Sei udalerrietako ordezkariak ilusioz eta gogoz izenpetu dute akordioa, hitzarmen berria osoa eta sendoagoa delako. Lanean jarraitzeko irrikaz daude.

Astigarragako Udala

Hernaniko Udala

Usurbilgo Udala

Lasarte-Oriako Udala

Andoaingo Udala

Urnietako Udala



<https://euskara.buruntzaldea.eus/>



# Atleta gazteek, dominak eta markak eskuan

16 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa lehiatu da hilaren 1ean, Donostian. Ostadar SKTko ordezkariak zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarrak parte hartu dute lehiaketan eta bost domina jantzi dituzte herriko atletek

## Txintxarri

Gipuzkoako 16 urtez azpiko kirolariak hilaren 1ean batu ziren Donostiako Antonio Elorza belodromoan lurraldeko txapelketa lehiatzeko. Ostadar SKTko ordezkariak eta Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarrak euren onena eman zuten eta bost domina ekarri zituzten herrira.

Lasarte-Oriako lau atletek lortu zuten podiumera igotzea (ikus ondoko koadroa); Ostadar SKTko Eider Redondo, esate baterako, bi probatan txapelkun izan zen eta Murgiondo pertikan.

Baina garaikurrez gain, markak ere ondu zituzten gaztetxoek. Murgiondok pertika proban 3,40 metrora egin zuen hegana. Osta-



Ezkerrean, Redondo eta eskuinean, Murgiondo, podiumetan. G. REDONDO/J. MURGIENDO

darreko ordezkariak dagokionez, Iraia Etxegia eta Olaia Muñizek pisuan euren marka pertsonala berri zuten (7,15 m.), baita Leire Matek (8,67) ere 60 m. lasterketan.

## Espainiako txapelketa

Murgiondok, gainera, lortutako markarekin Galiziara egingo du bidaia hilaren 15ean; 16 urtez azpiko pistako Espainiako txapelketa lehiatuko da Ourense (Ga-

## Eider Redondo

- Luzera jauzia - 1º
- 60 m. hesi lasterketa - 1º

## Hodei Murgiondo (Atl. San Sebastian)

- Pertika - 1º

## Iraia Gallego

- 600 m. lasterketa - 3º

## Iraia Etxegia

- Pisua - 3º

lizia). Ez da herriko ordezkari bakarra izango; Ostadar SKTko Redondo ere izango baita bertan.

Redondok proba horretarako bost gutxieneko eskuratu ditu denboraldian zehar -60 m. eta 60 m. hesi lasterketak, luzera jauzia, jauzi hirukoitza eta proba konbinatuak-, baina adin horretan bi proba bakarrik jokatuko dituzte lehiakideek eta Redondok proba konbinatuak lehiatzea aukeratu du.

Iaz urtean ere luzera jauziko lehiari izan zen Redondo, Valentzia eta finalerako sailkatu zen. Aurten ere lehen postuetan egoteko lehiatuko da.

## Ostadar Boleibolak Euskal Ligako finala jokatuko du etxean

Astebeteko atsedenaren ostean, Ostadar Boleibola ataleko Euskal Ligako II. mailako taldeak neurketa garrantzitsua jokatuko du hilaren 8an, 17:30ean, Maialen Chourraut kiroldegian.

I. mailarako igoera lortuta, ligako txapelkun izateko borrokatuko da talde urdin beltza.

Ligan garaitu duen aurkari bakarra izango du aurrez aurre finalean, D'Elhuyar Logroño.

Euren jokoa erakutsi eta etxeko berotasunaz ligako arantza kendu eta txapela Lasarte-Orian geratzeko borrokatuko du Asier Acuriolaren taldeak. Ez du lan erraza izango, ordea; D'Elhuyar aurreko denboraldian lehen mailan izan zen lehiari eta partida berdindua izatea espero dute urdin-beltzek.

Saileko gainerako ordezkariak ere atseden izan zuten Inauterietako asteburuan, kadeteek izan ezik. A taldeak Zarautzen Lizardi Biren aurka 3-0 (25-12, 25-7 eta 25-10) galdu zuen; B taldeak, aldiz, Usurbilen jokatuko eta 0-3 (11-25, 18-25 eta 11-25) irabazi zuen.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

#### Touring KE - Ostadar SKT

Igandea. 18:45. Fanderia, Errenterian.

#### GORENGO MAILA

#### Ostadar SKT - Danena KE

Igandea. 10:30. Michelin kirol gunean.

#### ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

#### Texas Lasartearra CF - Ast. Mundarro KFE B

Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

#### Usurbil FT B - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Harane, Usurbilen.

#### OJM, JAITSIERA

#### Ostadar SKT - Trintxerpe CD

Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

#### JUBENILEN GORENGO MAILA

#### Zumaiaiko FT B - Ostadar SKT

Igandea. 15:30. Aita Mari, Zumaian.

#### J. I. MAILA, IGOERA

#### Texas Lasartearra CF B - Amara Berri KE B

Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

#### J. I. MAILA, KOPA

#### Lazkao KE B - Texas Lasartearra CF

Igandea. 17:00. Arizti Handi, Lazkaon.

#### J. I. MAILA, UDABERRI KOPA

#### Billabona KE B - Ostadar SKT C

Larunbata. 18:00. Arratzain, Villabonan.

#### OKM, JAITSIERA

#### Danena KE - Ostadar SKT

Igandea. 13:00. Elbarrena, Zizurkilen.

#### K. I. MAILA, KOPA

#### Ostadar SKT (neskak) - Inbaurdi KE D

Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.

#### Ikasberri KE B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 12:00. Garmendipe, Azpeitian.

#### Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT

Igandea. 12:00. Berio, Donostian.

#### K. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA

#### Sporting de Herrera - Ostadar SKT C

Igandea. 10:15. Herrera, Donostian.

### ARETO FUTBOLA

#### I. MAILA

#### Euskalduna SD - Eguzki Arkupe Rehab.

Larunbata. 19:30. Alluralde kirol., Andoainen.

#### III. MAILA

#### Eguzki ISU Leihoak - Eskoriatza KE C

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

#### GAZTEEN MAILA

#### AF Antxo Pesc. Ferreres - Eguzki Bodegas Ayesa

Larunbata. 13:30. Pasai Donibane kiroldegian.

#### KADETE MAILA

#### Eguzki Goxokis Goxua - Laskorain KE B

Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOA

#### II. MAILA

#### Drunkat Hoops - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Alza kirol., Donostian.

#### JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

#### Ostadar Beltza - Inar Optika ISB

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

#### Ostadar SKT - Hemen Garb.k Eskoriatza KE

Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean.

#### EUSKAL LIGA, KADETEA

#### Tabirako Baque 10 Esp- Ostadar SKT

Larunbata. 10:00. Durango, Bizkaian.

#### KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

#### Ostadar SKT - Carr. Amute Hondarribia

Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

#### KADETE PARTAIDETZA

#### Ostadar SKT - Bera Bera Albistur

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

### BOLEIBOLA

#### EUSKAL LIGA, II. MAILA, FINALA

#### Ostadar SKT - D'Elhuyar Logroño

Larunbata. 17:30. Maialen Chourraut kirol.

#### JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA

#### Goierni - Ostadar SKT

Igandea. 09:45. Aldiri kirol., Urreburun.

#### KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA

#### Ostadar SKT A - Ipar Titanak B

Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.

#### Ostadar SKT B - Artzemandi 2

Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.

### PILOTA

#### ESKUZ BINAKA, ALE. I. MAILA

#### Intza - Aizkorpe 1

Ostirala. 18:45 (1. partida). Loidibarren pil.

### ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA, I. MAILA

#### Gipuzkoa Sortzen - Gebxo Etorbizuna

Larunbata. 16:00. Kote Olaizola mini., Donostian.

#### EUSKAL LIGA, II. MAILA

#### Gipuzkoa Sortzen - Uni. Bilbao Rt

Larunbata. 16:00. Atsoabak kirol gunean.

#### 18 URTEZ AZPIKOA

#### Gaztedi RT - Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 12:00. Gasteiz, Araban.

#### 16 URTEZ AZPIKOA

#### Gebxo B RT - Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 15:45. Gebxo, Bizkaian.

#### 10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA

#### Beltzak Errugbi eskolako gazteek topaketa dute.

Igandea. 10:30. Irunen.

### ATLETISMOA

#### ESPAINIAKO TXAPELKETA

#### Ostadar SKTko Iraia Alkorta 20 urtez azpiko pistako Espainiako txapelketan parte hartuko du 60 m. lasterketan.

Larunbata eta igandea. Salamanca, Gaztela eta Leonen.

### JUDO

#### LEGAZPI HERRIA

#### LOKEko infantil mailako judokak Legazpi herria nazioarteko txapelketan lehiatuko dira.

Larunbata. 15:00. Urbeltz kirol., Legazpin.

#### ALEBIN TOPAKETA

#### LOKEko alebilen eskolarteko jardunaldia izango dute.

Igandea. Goiza. Urnietako kiroldegian.

### IGERIKETA

#### NEGUKO LIGA

#### Buruntzaldea IKTKo absolutu, junior eta infantil mailako igeritariek Neguko Ligako azken jardunaldia jokatuko dute.

Larunbata. 16:00. Majori kirol., Ordizian.

#### ESPAINIAKO TXAPELKETA

#### Bidasoa XXI taldean dagoen Iñaki Garcia herritarra junior mailako Espainiako txapelketa ari da lehiatzen.

Asteazkenetik igandera. Sabadell, Katalunian.

### XAKEA

#### II. MAILA, IGOERA

#### Taula A - Zaleak A

Larunbata. 16:00. Blas de Lezo lokalean.

#### III. MAILA

#### Taula B - Beraun Bera C

Larunbata. 16:00. Blas de Lezo lokalean.

### DUATLOIA

#### AÑORGAKO DUATLOIA

#### Lasarte-Oriako kirolariak esprint zein super esprint modalitateko Añorgako Duatloian parte hartuko dute.

Igandea. 10:30. Añorga, Donostian.

### LASTERKETA

#### BILBOKO 10 K.

#### Herritarrek 1. Bilboko 10 k proba lehiatuko dute. Horretan Mari Carmen Olaso herritarrak master mailako 10 km probako Espainiako txapelketa izango du jokoan.

Igandea. Goiza. Bilbo, Bizkaian.



# Eguzki AFko harrobia ederki ari da lehian

Kadete zein infantil mailako Bar Escalerillas taldeek euren kategoriako lehen postuetan amaituko dute lehen fasea. Euskal kopa eta Euskadiko Jokoak lehiatzeko aukerak dituzte. Eguzki Bodegas Ayesa jubenil ekipoak, aldiz, txapeldunen fasea hasiko du hilaren 8an

## Txintxarri

Eguzki Aretu Futboleko harrobiko taldeak Gipuzkoako bere mailako lehen postuan daude sailkatuak; 1.700 zentzorian aipatu genuen kadete mailako taldeaz gain, jubenil eta infantil kategoriako Bar Escalerillas ekipoak dira.

Jubenil mailako Eguzki Bodegas Ayesa taldeak txapeldun modura amaitu zuen fasea otsailaren 23an. Lehen bederatzai sailkatuek, Francisco Javier *Kixki* Perezek zuzentzen duenak barne, txapeldunen fasea lehiatuko dute. Liga modura jokatu dute fase berria eta sailkapeneko lehen lau sailkatuen



Jubenil mailako jokalaria, erasoan neurketa batean. TXINTXARRI

arteak geratu beharko du Eguzki Bodegas Ayesa liga borrokatzeko. Lehen aurkaria Pescados Alberto Ferreres AF Antxo izango du.

## Espainiako lehiak

Eguzki Goxokis Goxuak taldeak, berriz, kadete mailako fase erregularreko azken jardunaldia jokatu du hilaren 8an.

Matematikoki lehen postua eskuratu dute dagoeneko kadeteek eta hurrengo fasearako bere hiru lehiakideak zeintzuk izango diren zain daude. Lau talde horiek bi itzuliko liga bat jokatu dute eta lehen biak Euskal Koparako txartela lortuko dute. Kopan Arabako eta Bizkaiko ordezkariek aurka egin beharko dute taldeek eta garailea Euskadiko ordezkaria izango da kadete kategoriako Espainiako txapelketan.

Azken sailkapen horrekin, gainera, ligako finalerdiak zehaztuko dira. Beraz, bigarren fasean asko du jokoan Gorka Redondok zuzentzen duen taldeak.

Bestalde, Infantil mailako Bar Escalerillas taldeak ez du neurketarik galdu lehen fasean. Oraindik hiru jardunaldi falta diren

arren, lehen postua mantenduko dutela uste dute Eguzki AFko arduradunek.

Otsailaren 23an, partida garrantzitsua irabazi zuen bigarren sailatu den Eskoriatzaren aurka eta falta lehiatan garaipen eskuratu gero Gipuzkoako ordezkaria izango da Euskadiko Eskolarteko Jokoetan. Maiatzaren 10ean, Araban oraindik zehaztu gabe dagoen kokalekuan hiruko lehia jokatu dute Bizkaia eta Arabako ordezkariek aurka eta garaileak infantil kategoriako Espainiako txapelketarako txartela eskuratu du.

## Euskadiko selekzioa

Horrez gain, 12 eta 14 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin lanean jarraitzen dute Eguzki AFko gaztetxoek. Otsailaren 28an eta hilaren 3an, entrenamendu saio ezberdinetan parte hartu zuen areto futbol gaztetxo talde batek. Euskadiko selekzioa apirilaren hasieran jokatu den Espainiako Erkidegoen Selektzioen arteko Txapelketak prestatzen ari da, saio hauek lehiara eramango dituen gaztetxoek zerranda zehazteko baliagarriak dira.

## Gipuzkoa Sortzen taldeak ongi hasi du bigarren itzulia

Ohorezko B Mailako taldeak ligako azken itzuliari hasiera eman dio; bi jardunaldietan garaipena eskuratu du

## Txintxarri

Beltzak RTko ordezkarietatik Gipuzkoa Sortzen proiektuko Ohorezko B mailako taldea izan zen bakarria Inauteri asteburuan liga hitzordua jokatzeko; Ohorezko B mailako jokalariek ligako

bigarren itzuliko lehia izan zuten hilaren 2an, Zarauzko Asti zelaian.

Fran Puertas herritarrak zuzentzen duen taldeak Gaztedi izan zuen aurkari eta nagusitasunez 91-0 irabazi zuten neur-

keta. Erasoan eta defentsa lan ederra egin zuten beltzek eta gszteiztarrek ezin izan zuten punturik eskuratu.

Bigarren itzulian ez du neurketarik galdu Gipuzkoa Sortzen taldeak eta horri esker, sailkapeneko bigarren postuan da Steelhalt Getxo Rugby taldearen atzetik. Hilaren 8-9an atsedean izango dute maila horretako taldeek eta 15ean, aldiz, Gijon Rugby Cluben aurka neurtuko dituz indarrak Gesalaga Okelanekean.

Beltzak RTko gainerako ordezkariek, ordea, jardunaldia izango dute eta hilaren 8an, 16:00etan, Euskal Ligako II. mailako Gipuzkoa Sortzen eta Universitario Bilbao Rugby taldeen arteko neurketaz gozatu ahalko dute Atsokabak kirol gunera hurbiltzen diren zaletuek.

## Europar epaile

Errugbiko Europako Trofeoko lehen neurketa jokatu zen hilaren 22an, Poloniako Narodowy estadioan. Polonia eta Kroazia-



Ibisate, ezkerreko bigarrena. CNA - ENA

ren arteko lehiari Jon Ibisate herritarrak David de Castroekin batera epaile laguntzaile lanak egin zituen; epaile nagusia Iñigo Atorrasagasti izan zen.

**BESTE MODURA DENONA DA ONURA**

**Martxoak 10-26 / [errigora.eus](http://errigora.eus)**

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

**EGIN ESKAERA ORAIN! >>>**



# Intzako pilotariek fase aldaketa dute

Trinkete modalitatean, Aritz Solanok bakarkako txapelketako finalerdia jokatu du eta ezin izan da finalerako sailkatu. Udaberri eta Errendimendu txapelketetan Gipuzkoako zein Ekialdeko lehiatako azken fasean sartuko dira Intzako hainbat bikote

## Txintxarri

Udaberri zein Binakako Errendimendu txapelketek fase aldaketa izango dute. Intza Kirol Elkarteko pilotarien jarduna ederra izan arren, batzuk ezinongo dute lehiari aurrera egin. Trinketean ere azken fasera iritsi da taldekide Aritz Solano.

Solanok lehen fasean neurketa guztiak garaitu ostean, hilarren 2, banakako Nagusien II. mailako txapelketako final erdikoari aurre egin zion. EPLEko Sorondoren aurka neurtu zituen indarrak. Lasarteoriatarra ezin izan zen finalerako sailkatu, Sorondok 26-40 gainditu zuen.

## Gomazko palan, zain

Udaberri txapelketan Nagusien I. mailako Jon Pello Artetxe-Perru Urdanpilleta bikoak ezin izan du azken faserako sailkapena eskuratu.

Gomazko pala modalitatean, euren multzoko bigarren postuan dira Iker Artetxe eta Jagoba Mendizabal, Zarautzen 17-25



Infantilen neurketa bat. TXINTXARRI

irabazi ostean. Lehiaren azken jardunaldian, ordea, eurek atsedenen izango dute eta lehiakideek egiten dutenaren menpe geratuko dira hurrengo fasea jokatuko duten jakiteko.

## Harrobia ere, fin

Errendimendu mailari dagokionez, infantil I. mailako Jauregi eta Maizek euren multzoko lehen amaitu dute fasea eta Ekialde

txapelketako kanporaketak jokatuko dituzte finalerako bidean.

Kategoria bereko II. mailako Lasa eta Lopezek ere aurrera egingo dute Ekialde txapelketan. Otsailaren 28an, Añorga 2 nagusitasunez (3-18) garaitu eta kanporaketei multzoko buru bezala egingo diete aurre.

Alebin I. mailako bikoaren kasuan, bi jardunaldi falta dira fase aldaketarako. Oraingoan euren taldeko bigarren postuan daude eta lehen bi postuetan mantenduz gero, Gipuzkoako txapelketako azken lehiarako sailkapena eskuratuko lukete.

II. mailako alebinek, ordea, ezingo dute azken fase hori jokatuko. Otsailaren 28an, bigarren faseko azken jardunaldian Izurun 3ren aurka ederki borrokatu eta 14-16 irabazi zuten Ibarzabal eta Olazabalek. Nahiz eta multzoko lehen eta bigarren sailkatuekin puntutan berdinduta egon, tanteoaren arabera hirugarren da bikotea eta lehiatik kanpo geratzen dira Intzako ordezkariak.



LOKEko gimnastak, Izarrak Torneoko domina eta diplomarekin. TXINTXARRI

## LOKEko gimnastak Izarrak Torneoko podiumean izan dira

Paula Martinezek eta Kadete B Mailako taldeak urrezko eta zilarrezko domina jantzi dituzte, hurrenez hurren

## Txintxarri

Hilaren lehenean, Barakaldoko (Bizkaia) Izarrak taldeak antolatutako torneoak jokatuko dira. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako gimnasta taldeez gain, Espainiako beste Erkidegoetako ordezkariak ere izan ziren lehiari. Horien guztien artean, Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) kadete B mailako taldea zein Paula Martinez eta Saioa Boyero bakarkakoak borrokatu ziren lehen postuetan izateko eta emaitza ederrak lortu zituzten; Martinez eta Kadete B taldeak podiumera igo ziren; Boyero, aldiz, laugarren izan zen.

LOKEko ordezkariak hiru mailatan parte hartu zuten eta guztiek lan ederra egin zuten pilotekin. Bakarkako lehiari dagokionez, senior B mailako lehiari, Paula Marti-

nezek koreografia maisutasunez dantzatuz lehen postua eskuratu zuen.

Saioa Boyero podiumetik gertu geratu zen jubencil A mailan. Nahiz eta %100ean egoten uzten ez dion lesioa izan, txapelketan parte hartu eta laugarren postuaren diploma jaso zuen.

Taldeen mailari dagokionez, LOKEko taldeen artean, Kadete B mailako izan zen bakarra lehiaketan. LOKEko kideek torneoan estreinakoz parte hartu zuten arren, urduritasuna alde batera utzi eta podiumeko bigarren mailara igotzea lortu zuten.

LOKEko prestatzaileak pozarren daude guztiek lehiaketan egindako lanarekin: "Urteko lehen torneo dugu eta emaitza ederrak izan ditugu".

## Texas Lasartearrako infantilak garaipena lortu du

Talde zuri-urdinak Usurbil FT izan du aurrez aurre Txapeldun faseko jardunaldian; 3-0 gailendu da

## Txintxarri

Futbol denboraldia aurrea doa eta maila ezberdinetako taldeak txapelketa ezberdinetan daude murgilduta. Texas Lasartearra CFko infantilak, esate baterako, Txapeldun fasea jokatzen ari dira.

Hilaren 1ean, lehiaketa horretako bigarren itzuliko jardunaldia jokatu zuten taldeak Michelin kirol gunean. Orioko FT izan zuten aurrez aurre eta etxekoek berdinketa eta porroten bolada

hautsi zuten; 3-0 nagusi izan ziren.

Lasarte-Oriako taldeak lehen zatiko azken hamabost minutuetan erabaki zuen neurketa. Lehenik Helder Ferreirak egin zuen gola, hiru minutuetara bigarrena egin zuen Telmo Aranzadik eta atsedenaldira joateko zirela, Liher Alonsok hirugarrena sartu zuen.

## Zorriker ez

Texas Lasartearrako gainerako ordezkariak, ordea, ez zuten



Texas Lasartearra CFko infantilak, erasoan Orioko FTren aurkako partidan. TXINTXARRI

garaipenik eskuratzerik izan euren hitzorduetan.

Erregional I. mailako taldeak 4-1 galdu zuten Vasconiaren aurka.

Jubencil mailan ere ez zuten zorte hobegorik izan herriko futbol taldeko bi ordezkariak.

Igoera kategorian, Zarautzek Texaseko B taldea 6-2 garaitu zuen eta kopan, Astigarragako Mundarro 1-2 gailendu zitzaion talde zuri-urdinari.

Kadeteek eta futbol eskolako kirolariek ez zuten jardunaldirik izan.

## 35. Squash txapelketa sozialeko izen ematea ireki da

Lasarte-Oriako Udako Kirol Zerbitzuak hogeita hamabosgarren Squash txapelketa soziala antolatu du.

Txapelketa apirilaren 7an hasiko da eta hiru hilabete iraungo ditu; apirila, maiatza eta ekaina artean jokatuko da.

Lehiari parte hartzeko gutxienez 16 urte izan behar dituzte kirolariek. Izena eman nahi duten pertsonak martxoaren 21a arte dute inskribatzeko.

Maialen Chourraut Kiroldegiko harreraren egingo da inskripzioa eta prezioa udako kiroldegietako bazkideentzat 11,60 eurokoa da.





Ezkerrean, Aimar Sukunza Hipodromoko krosean lehian; eskubian, triatloi proba batean. GAF/A. SUKUNZA

# "Ez nuen espero; emaitzak bakarrik etorri ziren"

**AIMAR SUKUNZA GOMEZ TRIATLETA ETA KROS LASTERKARIA**

2024 urteko Euskal Kros Ligako garaile izan da 23 urtez azpiko mailan. Krosean zein triatloian podium ezberdinetan izan zen iaz eta aurten triatloiko esprint Euskadiko Txapelketa du helburu

## Nerea Eizagirre

Aimar Sukunza Gomez (Lasarte-Oria, 2003) herritarrak triatloi eta kros uztartzen ditu urtero. Bi modalitate horietan lehian eta hamaika podiumetara igo zen bietan joan den urtean. Harekin bildu eta azken urteko errepassoa egiteaz gain, aurtengo urteaz ere jardun gara.

**2024ko Euskal kros Ligako garaile 23 urtez azpikoan. Parte hartutako proba gehienetan podiumeko gorrena igo zinen, buruan zenuen garaipena?**

Nire helburua, berez, ez zen podiumean egotea. Pixkanaka sortu zen egoera izan zen. Hel-

buru nagusia udatik itzuli eta forma hartzea zen. Astez aste nire hobekuntza nolakoa zen ikusi nahi genuen. Ez nuen espero podiumean egotea; emaitzak bakarrik etorri ziren.

**Azken probatan, eskura zenuenean, presioa sentitu zenuen?**

Lasai egon naiz, nire helburua udaberrirako forma hartzea ze-

**"URTEA BITAN BANATZEN DUT. NEGUAN KROSA ETA UDA PARTEAN TRIATLOIA EGITEN DUT"**

lako. Asteak joan ahala lortu nahi genuen egoerara iritsi naiz eta horregatik, ez diot emaitzen-gatik presiorik jarri neure buruari.

**Aurtengo liga hasi berri da eta podiumean egon zinen urtarrilean Ordizian.**

Bai, Ordiziako proba ongi joan zen. Elgoibar eta aste bete geroago izan zen eta nekatuta egongo nintzela uste nuen; Elgoibarkoa gogorra delako. Ez nuen parte hartzeko asmorik, baina Espainiako txapelketarako sailkatzeko aukera nuela ikusi eta aste batetik bestera erabaki genuen.

Atzetik aurrerako lasterketa izan zen. Lehen itzulian asko kosta zitzaidan lokatz pila zegoen eta ez nintzen egokitzen. Baina pixkanaka lasterketan sartzen nindoala ikusi nuen eta postuak aurreratzea lortu nuen.

**Eta Euskadiko selekzioarekin Espainiako kros txapelketan parte hartu zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Esperientzia polita izan zen. Nire zaletasun bera duten pertsonak ezagutzea eta batzea polita da.

Baina emaitza ez zen espero genuena izan. Prestakuntza aldetik guztia ongi joan zen, baina egunean ez zen espero bezala joan. Akatsetatik ikasteko gaude eta aurrerago berriro aukera izango banu horrelako txapelketara joateko, saiatuko nintzateke emaitza hobetzen.

**Krosean gauza asko dago zuen jarduna eragin dezakeena: ibilbidea, euria, lokatza, izotza...**

Bai, horrela da. Kasu horretan, zirkuitua gogorra zen. Aldapa asko zituen. Eta proba horren prestakuntza horretara bideratu genuen, espresuki Leitzaranean aldapak entrenatzen egon ginen.

Gainera, azken astean ez nintzen entrenamendu saioetan ongi ibili. Normalean baino gehiago kostatzen zitzaidala nabari nuen. Itxaropena duzu atsedean hartu eta egunean gauzak ongi joango direla, baina ez zen horrela izan.

**Kros Ligak urtarrilean bi proba ditu eta gero etena du udazkenean arte.**

**Horrek arazorik suposatzen al dizu?**

Nik berez triatloia egiten dut. Beraz urtea bitan banatzen dut neguan krosei eskaintzen diet eta udaberri-uda partean triatloia egiten dut. Uztailean bi edo hiru asteko atsedena egiten dut. Eta gero berriro krosa. Urtero berdin egiten dut.

Orain, beraz, asmoa triatloiak prestatzea da. Normalean urtero estruktura bera jarraitzen dut eta ongi moldatzen naiz. Denbora aldetik ez nabil soberan eta gero ez dut gustuko lasterketa gehiegi egitea ere. Gorputzari atsedean ematea garrantzitsua da.

**"KIROLA DENBORA PASA BAT DA NIRETZAT, NAHIZ ETA HORRI AHALEGIN ASKO ESKAINI"**

**laz esprint modalitateko Gipuzkoako txapelketan bi dominak jantzi zenituen (absolutu mailako brontzea eta 23 urtez azpiko zilarra) eta hainbat probatan zure mailako podiumera igo zinen. Aurtengo helburua zein izango litzateke?**

Helburu nagusia Euskadiko Triatloi txapelketa da. Lekeition (Bizkaia) izango da ekainaren 21ean. Atletismoko probaren bat ere egingo dut agian. Ea markaren bat ontzen dudan edo prestakuntza modura. Baina esan bezala Euskadiko txapelketara begira nago lanean.

**Triatloian hiru kirol uztartzen dituzue: korrika, bizikleta eta igeriketa. Nola moldatzen zara entrenamendu saioak egiteko?**

Guztia uztartzearena ez da erraza izaten. Hiru diziplina dira. Normalean egunean bitan entrenatzen saiatzen naiz eta unibertsitateko klaseen arabera moldatzen naiz. Eta azterketak edo lan entregean arabera ere moldatzen noa. Asteburuetan ere sartzen ditut nahiko ordu, gero astean zehar sartu ahal ezin ditudanak. Praktiketan ere egon nintzen ikasturte hasieran eta 06:45ean esnatu, entrenamendu saioa egin, praktikak egin eta amaitzean beste entrenamendu saioa egiten nuen.

Helburu nagusia ikasketak ateratzea da eta kirola denbora pasa bat da, nahiz eta horri aha- legin asko eskaini. Beti argi izan dut hori. Kirol egitea asko gustatzen zaidan gauza da, baina ikasketak aurretik doaz.

**Hamaika proba lehiatzen dituzu urtean zehar, baina bai krosean baita triatloian ere ba al da gustuko duzun lehiarik?**

Krosari dagokionez, Lasarteko Hipodromoko krosa. Nahiz eta Elgoibarrekoa ere oso ezaguna den eta asko gustatzen zaidan. Baina kuttunena Hipodromokoa da. Txikitatik joan naiz ikustera eta kariño berezia diot.

Triatloian, gustuko proba asko daudela esango nuke, baina gehiena eta ezagunenetarikoa Zarauzko Triatloia da.

Horretara ere txikitatik joan naiz guraso, aitona-amonekin eta gainera horren bidez, nik uste dut Euskadik baduela erakusleho ederra hemen ere triatloi politik eta maila onekoak egiten direla erakusteko.

Elkarrizketa, osorik,  
[www.txintxarri.eus-en](http://www.txintxarri.eus-en)



## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**David**  
Gure bizitzaren bidea, gure proiektua zurekin eskua emanda egitea, luxu hutsa da! Mila esker edozein egoeraren aurrean gehitzeagatik, dena hobetzeagatik; horrela bai, zure ondoan...infiniturantz! 40 muxu!!!



**Oier**  
Zorionak!!! Hamasei muxu potolo eta besarkada handi bat!!! Ondo ospatu zure eguna!! Enaut, aitona-amona eta familiarren partetik maite zaitugu!!!!

**Juanma eta Mila**

Zorionak amama eta aitona zuen 50. ezkontz ezteietan. Eskerrik asko erakutsi diguzuten guztiagatik, eman diguzuten babes, laguntza, mimo eta maitasunagatik, eta une gazi goxo guztietan hor egoteagatik. Izugarri maite zaituztegu! Eider, Eneko, Oihana, Alberto, Malen, Maddi, Aner eta Nahia.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 7	DE MIGUEL
LARUNBATA, 8	ORUE
IGANDEA, 9	ORUE
ASTELEHENA, 10	LASA
ASTEARTEA, 11	GIL
ASTEAZKENA, 12	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 13	KNIESE

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00**

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behea, Hernani. 943-55 20 87

**'URTE OSOKO GUARDIAK'**

Informazio gehiago [www.cfgipuzkoa.com](http://www.cfgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK**

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

**LARRIALDI TELEFONOAK**

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

**SALDU**  
Trastelekua saltzen dut, 20 m<sup>2</sup>., sotoa da, Sasotetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

**EROSI**

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

**ERRENTAN HARTU**

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

**ERRENTAN EMAN**

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

**LANA****ESKARIA**

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Externa moduan lan egiteko prest nago, 09:00etatik 16:00etara. Dokumentazio guz-

tia eguneratuta dut. Harremanetarako, 623 72 00 61.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

**BESTELAKOAK****HEZKUNTZA**

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zerbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

**SALEROSKETA**

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera emateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eserleku berogarriekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea.

Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-ese-kidura eta marboko estalkiak. Dazkadan serieko gauza guztiak motorraren batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.l saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

## AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

**Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan**

txintxarri@ttakun.eus  
943-37 14 48  
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

**Informatika zerbitzuak**

IZT Informatika.

**Publizitatea**

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Lierni Apaolaza Urdanpilleta.

**Publizitatea**

Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux  
Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
Basterra, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

**Banatzaileak:**

Xuban Urdalleta, Nikola  
Iraola, Nora Navarro, Aimar  
Hernandez, Gari Iraola eta  
Iñigo Ibarburu.

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 7

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Ttipia Teatroa konpainiak *La maja y la mona* antzezlanaren emanaldia egingo du, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Sarrera doakoa da.

**Kultur etxea, 19:00etan.**

### LASARTE-ORIA Aforia

Casa Humada jatetxean afalduko dute izena eman duten herritarrek. Martxoaren 8aren baitako jarduera da.

**Casa Humada jatetxea, 21:30ean.**

## LARUNBATA 8

### LASARTE-ORIA Ekimena

Izan Iñurri elkartearentzat dirua biltzeko ekimen solidarioa aurrera eramango dute: bi yoga saio eta gosari bat. Parte hartzaileek oroigarriak jasoko dituzte.

**Antonio Mercero aretoa, 08:30etik 10:30era.**

### LASARTE-ORIA Kirola

Zunba maratoi bat egingo dute Martxoaren 8ko egitarauaren barruan.

**Okendo plaza, 10:00etatik 11:45era.**

### LASARTE-ORIA Apainketa

Herriko gazte feminista batzuek ekimenak antolatuta dituzte Martxoaren 8aren harira. Adibidez, herri apainketa.

**Herrian barrena, 10:00etatik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Hamaiketakoa

Herriko gazte feminista batzuek ekimenak antolatuta dituzte Martxoaren 8aren harira. Esate baterako, hamaiketakoa.

**Xirimiri elkarteak, 11:00etan.**

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Martxoaren 8aren harira, elkarretaratzera deitu du udalak.

**Okendo plaza, 12:00etan.**

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Herriko gazte feminista batzuek ekimenak antolatuta dituzte Martxoaren 8aren harira. Egitaraua



### LASARTE-ORIA Emakumearen Nazioarteko Eguna

Lasarte-Oriako Udalak zein herriko gazte feminista batzuek ekimen ugari iragarri dituzte Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan. Orri honetan jaso ditugu jarduera horiek guztiak.

**Hilaren 7tik 18ra, herrian barrena.**

ixteko, manifestazio bat aurrera eramango dute.

**Okendo plazatik abiatuta, 12:30etik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Eidabe Teatroa konpainiak *Amama!* antzezlanaren emanaldia egingo du. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko ekimena da eta sarrerek 4 euro balio dute.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

## IGANDEA 9

### LASARTE-ORIA Andaluzia eguna

Andaluzia eguneko (otsailak 28) ospakizunekin jarraituko du Semblante Andaluz elkarteak. Meza rozieroa egingo du eta Semblante Rociero koroak parte hartuko du.

**San Pedro parroikia, 12:30ean.**

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Zero Sette Akordeoi Orkestrak kontzertu bat emango du Martxoaren 8aren egitarauaren barruan. Emakume konposatzaileen lanekin osatutako errepertorioa emango dute. Sarrera, doan.

**Antonio Mercero aretoa, 12:30ean.**

### LASARTE-ORIA Andaluzia eguna

Andaluzia eguneko (otsailak 28) ospakizunekin jarraituko du Semblante Andaluz elkarteak eta

herri bazkaria egingo du, bazkide eta udal ordezkariekin.

**Semblante Andaluzen egoitza (Atsobakar auzoa), 14:30ean.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Polican* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dituztela jakinarazi dute emanaldiaren antolatzaileek.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Andaluzia eguna

Andaluzia eguneko (otsailak 28) ospakizunekin jarraituko du Semblante Andaluz elkarteak. Jose de la Bahía eta Daniel Ayala musikariak flamenko emanaldia egingo dute.

**Semblante Andaluzen egoitza (Atsobakar auzoa), 17:30ean.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Maria Callas* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek, 6 eurotan.

**Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTEAZKENA 12

### LASARTE-ORIA Bideoforuma

Biyak Bat adinekoren egoitzakoek film bat ikusiko dute eta "feminismoa eta transexualitate bezalako gai garrantzitsuak" landuko dituzte.

**Biyak Bat egoitza, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Bilera

Lasarte-Oriako Bizipoza taldea osatzen duten eragileek bilera ireki batera deitu dituzte herritar guztiak, maiatzeko kulturartekotasunaren bueltan egingo duten jaialdia prestatze aldera. "Zuen ekarpena, txikia izanda ere, garrantzitsua da guretzat: iritzi bat, laguntza, ekitaldian parte hartzea...", adierazi dute antolatzaileek.

**Ttakunenea elkarteak, 18:00etan.**

### LASARTE-ORIA Opera

*Otello* ikuskizunaren emanaldi digitala egingo dute Danok Kide elkarteak eta udalak. Sarrerek 7,5 edo 9 euro balio dute.

**Kultur etxea, 19:30ean.**

## OSTEGUNA 13

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Kikilisaitsa taldeak *Eta horrela jarraitzen degu* antzezlanaren emanaldia egingo du, eta ondoren, solasaldi bat, aretora bertaratzeko diren herritarrekin. Sarrera, doan. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko ekimena da.

**Antonio Mercero aretoa, 19:30ean.**

## OSTIRALA 14

### LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Querer* filma emango du, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Sarrerek 6 euro balio dute.

**Kultur etxea, 20:00etan.**

## LARUNBATA 15

### LASARTE-ORIA Tailerra

Autodefentsa feminista tailer bat antolatu dute nerabeentzat, euskaraz. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko jardueretako bat da.

**Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroa, 11:00etatik 14:00etara.**

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Ene Kantak taldeak *Bisonte-mastodontearen bila* antzezlanaren emanaldia egingo du, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

## IGANDEA 16

### LASARTE-ORIA Motorrak

Scooter Club Euskadi elkarteak motorzaleen rallyaren 25.

urteurrena ospatzen ari da. Horren barrua, Gipuzkoari itzulia emango dio, sei etapatan. Aurrenekoan Iraetaraino joan eta Lasarte-Oriara itzuliko dira.

**Route 33 taberna, 09:30ean.**

### LASARTE-ORIA Topaketa

Elkarte gastronomikoetako eta erregio etxeetako emakumeen topaketa egingo dute:

**11:00etan**, txupinazoa eta agurra.

**11:15ean**, kalejira eta pintxo-potea, Oaintxe in deul txarangarekin.

**13:30ean**, Beia Egizabalen bakarriketa, Extremadura Etxean.

**14:15ean**, bazkaria.

**17:00etan**, karaokea.

**Extremadura Etxea (Adarra kalea) eta herrian barrena.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Flow, un mundo que salvar* filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Nosotros* filma emango dute, helduentzat. Sarrerek, 6 eurotan.

**Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTEARTEA 18

### LASARTE-ORIA Literatura

Irakurle Txokoko kideek *Animalia domestikoak* lanari buruzko saioa egingo dute, Esti Martínez Diaz de Cerio idazlearekin. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko jarduera da.

**Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.**

## LARUNBATA 22

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Kamikaz Kolektiboak *Renata* antzezlanaren emanaldia egingo du, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

**Kultur etxea, 20:00etan.**

## IGANDEA 23

### LASARTE-ORIA Zinema

*Mary Superchef* filmaren emanaldia egingo dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*La luz que imaginamos* filmaren emanaldia egingo dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

**Kultur etxea, 19:30ean.**



Nico, Donostia  
24/12/4 Donostia Ospitalea



## Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko  
lurraldea izatea da gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.

**M8**

Emakumeen  
Nazioarteko Eguna

ASKATASUNA ERRESPETUA  
AUKEERAK hezkuntza  
ELKARTASUNA #Ni Feminista  
sareak BERDINAK  
ahalduntzea Naiz eskubideak  
BERDINAK ANIZTASUNA  
TASUNA ONGIZATEA  
Feminismoa zurekin bat

